

2025

SAN FAUSTO JAIK DURANGO

Urriaren 10etik 19ra



JAKINARAZPENAK

JAIETAN, ETA BEREZIKI SAN FAUSTO EGUNEAN, DURANGOKO JANTZI TRADIZIONALA JANZTERA ANIMATZEN ZAITUGU (ALKONDARA ZURIA ETA GONA EDO PRAKA URDINAK).

- 16 urtetik beherako umeek debekatuta dute helduentzako “Zezenak dira” ekitaldian parte hartzea.
- Jai Batzordeak eskubidea du egitarauan aldaketak egiteko.
- Egitarauan aldaketarik balego, herritarrentzako informazio puntuetan, Durango

Agenda app-an, udaleko sare sozialetan eta **www.durango.eus**. webgunean agertuko dira.



- Udalak ez du erantzukizunik izango jai ekitaldietan gerta litezkeen istripuetan.

BIZKAIBUSEN ZERBITZU BEREZIAK

22:30ak eta 6:30ak artean Bizkaibusen bakarrik bidaiatzen duten emakumeek aukera izango dute lineako geldileku ofizialak ez diren geldialdiak eskatzeko [401/2019 Foru Agindua]. Autobusa hiri bideetan geldituko da, espaloia iren ondoan edo oinezkoen pasabideen gainean, betiere, argia dagoen lekuetan eta inguruan eraikinak dituztenetan.

UDALTAINGOAREN 24 ORDUKO ARRETA

Edozein premia, larrialdi edo laguntzarako, deitu **94 603 00 10** telefonora.

GUNEAK

1. SALTZAILE IBILTARIEN GUNEA

Askatasun Etorbidean.

2. TXOSNAK

Landako Guneko plazan. Txosnagunean egin-goto diren ekintza guztiak Txosna Batzordeak antolatutakoak dira.

3. BARRAKAK ETA ZEZEN PLAZA

Tren-kotxera zaharretan.

Sentsibiltate bereziko umeentzako egunak barraketan (musika eta zaratarik gabe): urriaren 14, 16 eta 17an, 17:00etatik 19:00etara.

Umearen eguna: urriaren 16a (barrakaren prezioa: 2€).

DAGOENeko SENTITZEN DOGU ZIRRARATXO HORI: BADATOZ SAN FAUSTOAK!



MIREIA ELKOROIRIBE,
DURANGOKO ALKATE-ANDREA

Gure herria bizitzaz, irribarre partekatuez, asko itxarondako alkarteez eta sortzeko dagozan oroitzapen barriez beteteko prestetan dabil. Erlojua gelditzeko eta Durangoko jaiek bakarrik sortzen dakixien musikak, giroak eta emozinoak eramaten uzteko egunak dira.

Kaleak izango dira barriz be garen guztiaren eszenatoki: gure tradizioak, lagunak, koadriak, gure bizitzeko gogoa. Izan be, jaiak gure nortasunaren, durangarrak izatearen harrotasunaren eta alkar zaintzen eta alkarregaz gozetan dakigun moduaren isla be badira.

Aurten, inoiz baino gehiago danontzako jaiak gura doguz, maitasunez, aniztasunez eta errespetuz. Pertsona bakoitzak bere unea eta espazioa topatzeko antolatutako jaiak.

Eskerrik asko bihotzez posible egiten dozue: noi: Jai Batzordea, alkarteak, txupineroak, udal langileak, zuen ilusinoak, ideiak eta denpora emon dozuezan guztioi, eta egun honeetan Durangok eta bere San Faustoek inoiz ez lako distira izan dagien lan egingo daben persona guztiei. Zuen konpromiso barik, ez litzake horrelangorik posible izango.

Jai egun honeetan zaindu gaitez. Jai parekide, seguru, aske eta errespetuzkoen alde egin daigun. Holan bakarrik bermatuko dogulako guztiok ahalik eta gehien gozatu ahal izatea.

Beraz... urten, dantzatu, abestu, lagundu eta partekatu. Jai honeek zeure egin eta oroitzapen ahaztuezin izan daitezela.

GORA SAN FAUSTOAK! GORA DURANGO!



TXUPINEROAK 2025

SAN FAUSTO GIZARTE ZENTROA

Aurtengoa ez da nolanahiko urtea. 50 urte igaro dira San Fausto Gizarke Zentroak bere ateak ireki zituenetik, eta ez zaigu ospatzeko modu hoberik bururatzen opari erraldoi hau baino: gure jai maiteetako pregoilari izendatuak izatea.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez ohore handi honengatik. Hau 50 urteko historia, elkarlana, komunitatea eta, batez ere, Durangorekiko maitasunaren aitortza gisa sentitzen dugu.

San Fausto Gizarke Zentroan jai asko bizi izan ditugu. Batzuk eguzkitan, beste batzuk zaparrada artean... baina denak kalejiraz, bersarkadez, eta urtero errepikatzen diren baina inoiz aspertzen ez gaituzten abestiez beteta.

Aurten, gure jaiak guztiontzat izatea nahi dugu: umeentzat, gazteentzat, gurasoentzat,

aitite-amamentzat, dena ondo funtziona dezan lan egiten dutenentzat, baita dagoeneko gure artean ez daudenentzat ere.

Eta ezin dugu Gure San Fausto Berria ahaztu; duela 18 urte, gazte talde batek San Fausto auzoari bizia emateko ametsarekin sortutako elkarte. Urte batzuk geroago, San Fausto Gizarke Zentroarekin batu ziren, proiektu sendoago, batuago eta biziago bat eraikitzeko.

Eskerrik asko, *Marea Urdina* elkarteari, Patxiotxu pampina hutsa baino askoz gehiago bihurtzeagatik: poztasunaren, nortasunaren eta gure jaietako maitasunaren sinbolo baita.

Zorionak eta mila esker bihotzez!

Beraz, gure txoko kuttunetik, gure Gizarke Zentrotik, hau esaten dizuegu:

**GORA SAN FAUSTO! GORA DURANGO! GORA MAREA URDINA
ETA GORA PATXIOTXU! GORA GURE JAIK!**

TXUPINERO TXIKIA

NEVERS IKASTETXEA: AUSARDIAZ ETORKIZUNERA BEGIRA



Nevers Ikastetxea ez da soilik hezkuntza-zentro bat; 114 urteko ibilbidea duen komunitatea da, Durangon 1903an sortua eta 1982tik familia kooperatiba bezala finkatua.

Gure ibilbidea hasiera xume batetik abiatu zen, emakumeentzako prestakuntza aitzindaria eskainiz. Gaur egun, garai berrietara egokitzen jakin dugu eta hezkuntza etapa ezberdinetan lan egiten dugu, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara.

Etorkizunera begira, hezkuntza eraldatzaile baten aldeko apustua egiten dugu. Beldurrik gabe, bihotzetik sortutako ideia berritzaileak ausardiaz aurrera eramanez, etengabeko prestakuntzaren aldeko apustu tinkoa egin dugu gure ikasleen erronkei aurre egiteko.

Familien parte-hartze aktiboa zein irakasleen konpromisoan sendotutako lankidetzak bizia funtsezkoak izan dira ikastetxearen nortasuna eta izaera garatzeko. Gardentasuna, hurbiltasuna eta konfiantza gure eguneroko lan(aren) ardatz bihurtu ditugu, ikasle bakoitzaren ongizatea eta garapen osoa bermatzeko asmoz.

Nevers ikastetxea, ikastetxe eleanitza eta irekia da, etengabeko hobekuntzaren alde egiten duena. Harro esan dezakegu, euskararen aldeko konpromiso aktiboa dugula belaunaldi berriengan, hizkuntzarekiko maietasuna eta errespetua transmititzeko helburua baitugu.

Durangorekin harreman estua izan dugu beti, horregatik, Nevers Ikastetxetik, durangar guztioi jaietan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu. Jaiak bizikidetzarako eta gozamenarako une aproposak dira, beraz, bihurtu dezagun Durango herri seguru, alai eta adeitsua, eta bizi gaitezen eta gozatu dezagun euskaraz.



**GORA PANTXIKE,
GORA PATXIKOTXU!**

GORA DURANGOKO JAIK!

DURANGO

**GOAZEN
JAIK ASKE
DISFRUTATZERA!**

LIGOTEO SANOAK NAHI DUGU

**EZETZA EZ DA NEGOZIAZIOAREN
HASIERA**, tematzan bazara jazarpenaren
hasiera da.

**JAIETAN HARREMAN OSASUN-
TSUAK, ASKEAK ETA BERDINTA-
SUNEZKOAK SUSTATUKO DITUGU**,
errespetuan eta elkarbizitzan oinarrituak.

SOILIK BAI DA BAI. Ados egon behar
zarete, isiltasuna ez da baimena.

Alkohola edo beste sustantziaren bat
kontsumitzeak ez du **INOIZ** eraso
justifikatuko.

Ez da **KOMENTARIO SEXISTARIK**
onartuko.

EZ DA LGTBIQA+FOBIA adierazten
duten komentariarik ezta jarrerarik
onartuko.

**GORPUTZ, ADIERAZPEN ETA
JANZKERA** guztiak errespetatuko dira.



**PERTSONA BATEK USTE BADU
ERASO BAT JASAN DUELA, ERASO
BAT DA!** Ez zalantzan jarri!

**EDOZEIN ERASOREN AURREAN
JARRERA AKTIBOA IZANGO DUGU**
laguntza eskainiko dugu, betiere erasotua
izan den pertsonaren erabakia errespetatuz.



**DurangoAZEN JAIK
ASKE DISFRUTATZERA!**
SAN FAUSTOETAN EZ DUGU INOLAKO
ERASO MATXISTARIK ONARTUKO!

Ligoteo sanoa?
BAI!



ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE!

SAN FAUSTOETAN ERASO MATXISTA BATEN AURREAN...

- Arriskua berehalakoa bada, deitu **112**ra.
- Erasoa sufritu duen pertsona entzun.
- Galdetuiozu zelan lagundu diezaiokezun.
- Ez utzi bakarrik, bere konfiantzazko den norbaitekin harremanetan jartzen saiatu.
- Jaiak irauten duten bitartean **24 ORDU-KO TELEFONO ZERBITZUA** eskuragarri egongo da, indarkeria matxistan aditua den psikologo batek artatuta; deitu eta galdetu zelan jokatu behar duzun.

TELEFONO ZERBITZUA: 747 459 584

SEXU-ERASO MATXISTA BATEN AURREAN...

- Ez aldatu arropa, ez edan eta ez jan.
- Hurbildu osasun zentrora, laguntza medikoa eskainiko dizute.
- Zuk erabaki salaketa judiziala jarri nahi duzun.
- Laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea daukazu.
- Gogoratu erasotzailea identifikatu ahal izateko datuak.

Pertsona administrazio-egoera irregularrean badago, arreta jasoko duela eta bere egoera ez dela okertuko helarazi behar zaio.

BESTE ARRETA TELEFONOAK:

- Durangoko Ertzaintza [24 ordu]:
94 466 93 00
- Udaltzaingoa [24 ordu]: **94 603 00 10**
- Krisi zentroa [indarkeria sexuala] [24 ordu]:
900 840 977
- Biktimen arretarako SATEVI zerbitzua [24 ordu]: **900 840 111**

ESKURA DAUDEN BALIABIDE...

PUNTU MOREA

Eraso matxisten kontrako arreta eta informazio puntua.

- Urriaren 10, 11, 12, 17 eta 18.
- 20:00etik 02:00era.



TELEFONO ZERBITZUA

Informazio eta laguntza telefona, psikologo batek artatuta:

747 459 584.

24 ordutan urriaren 10etik 13ra eta 17tik 19ra.

**DURANGO IRRATIA
(107.8 FM)**

SAN FAUSTO JAIETAKO PROGRAMAZIO BEREZIA

**Urriaren 10etik
19ra bitartean**

TERTULIAK ETA
ELKARRIZKETAK:
goizeko 11:00etatik aurrera
herriko eragile desberdinekin.



LARUNBATA 4

08:00 PERRETXXIKOEN BILKETA.

Irteera Ezkurditik.

Antolatzailea: Errotari Elkarte Mikologikoa.

09:00-14:00 XV. DURANGOKO

AZOKA EKOLOGIKOA. Andra Marin.

Antolatzailea: Marisatsa elkarte.

AZOKA EKOLOGIKOA



11:00-23:00 I. BIZKAIKO

ERROMERIA EGUNA Landako Guneko
inguruetan.

11:00 DURANGOKO III. MENDI

DUATLOIA Tabiran.

Antolatzailea: Mugarra Triatloi Taldea.

16:30 DURANGOKO EMAKUMEZKO

I. XAKE TXAPELKETA Landako
eskolako frontoian.

Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.

18:00 40. SAN FAUSTO ZESTA

PUNTA TXAPELKETA. Finalerdiak

Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

Neskak eta mutilak gazte eta nagusi
mailan.

Antolatzailea: Durango Jai Alai Zesta Punta
Eskola.

XAKEA



IGANDEA 5

09:30 DURANGOKO XAKE

AKTIBOKO I. OPENA Landako eskolako frontoian.

Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.

10:30 40. SAN FAUSTO ZESTA

PUNTA TXAPELKETA. Finalerdiak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

Neskak eta mutilak gazte eta nagusi mailan.

Antolatzailea: Durango Jai Alai Zesta Punta Eskola.

SAN FAUSTO ZESTA PUNTA TXAPELKETA



11:00 XXV. MIKOLOGIA ERAKUSKETAREN EDIZIOA.

XXIV. Argazki mikologikoen lehiaketa eta perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beherakoentzako XXIV. Lehiaketa Landako Gunean.

Antolatzailea: Errotari Mikologia Elkarte.

12:00 "DURANGOKO BIDEGORRIA EZAGUTU".

Familientzako bizikleta irteera. Irteera: Ezkurdin.

Antolatzailea: Sapubike.

12:30 "TABIRAKO ALAI SAN FAUSTOKO OPENING GAME PARTIDUA"

Merkatu Plazan.

Antolatzailea: Tabirako Saskibaloi Taldea.

XXV. MIKOLOGIA ERAKUSKETA



ASTEARTEA 7

MUS, TUTE, BRISKA, IGEL ETA BILLAR TXAPELKETEN HASIERA NAGUSIENTZAT.

Izen-ematea doakoa izango da, urriaren 1etik 5era arte, Adinekoen udal egoitzako kafetegian.

Plazak zozketa bidez emango dira urriaren 6an.

Laguntzaileak: Cafés Baqué eta Txukun kafetegia.



TXUPINAZOA



OSTIRALA 10

18:30 Jaiak hasteko **KUADRILLEN ELKARTZEA** San Fausto auzoan. Erdutik.

19:00 **PATXIKOTXURI ONGI ETORRIA** San Fausto auzoan. Ondoren, kuadrillen jaitziera udaletxeko plazaraino TABIRA MUSIKA BANDArekin.

19:30 **KALEJIRA** Santa Anatik txosnagunera. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

GORA SAN FAUSTO JAIK!



REDER



20:00 **TXUPINAZOA** udaletxeko plazan CENTRO SOCIAL SAN FAUSTOren eskutik. **GORA SAN FAUSTO JAIK!** [zeinu-hizkuntza interpretea egongo da].

20:00 **TXUPIZANOAZUZENEAN PANTAILA ERRALDOIAN** Andra Mariko elizpean.

20:15 **ERROMERIA ERROTA** durangarrekin Andra Mariko elizpean.

21:00 **TXUPINAZOA TXOSNAGUNEAN** Gaztetxearen eskutik.

21:30 Kontzertuak txosnagunean: **REDER, NEKKTAR, ZEKER** eta **DJ USU&IPI**.

22:30 Kontzertua Ezkurdin: **BULEGO**.

BULEGO



LARUNBATA 11

07:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

08:30 **SUKALKI TXAPELKETA LANDAKO GUNEAN.** Izen ematea 17tik 24ra izango da www.durango-udala.eus webaren bitartez. Plazak zozketa bidez banatuko dira irailaren 26an.
Laguntzaileak: Hiper Eroski Abadiño eta Cafés Baqué.

11:00 **DURANGOKO PILOTA ESKOLAKO UMETXOEN PARTIDUAK** San Fausto pilotalekuan.
Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba.

11:00-13:00 **SAN FAUSTO HAUR MARRAZKI LEHIAKETA** San Fausto auzoan. Adina: 6 urtetik 17ra.
Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

11:00-14:00 **TXIKIENTZAKO PARKEA** Landako eskolan: bebeteka, ludoteka, puzgarriak, tailerrak...
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

SUKALKI TXAPELKETA



11:00-14:00 **GAZTETXOENTZAKO GUNEA** Ibaizabal parkean: tragabola puzgarria, pista amerikarra, rokodromo puzgarria, kirol jolasak, tailerrak...
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

11:30 **INGELESEZKO IPUIN KONTAKETA** Ezkurdiko kioskoan (3-8 urte).
Antolatzailea: KIDS&US.
Euria bada, Jesuitak ikastetxean.

11:45 **TABIRA MUSIKA BANDAK** emanaldia eskainiko du J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **GAZTE EGUNEKO KAMISETA BANAKETA.**
Antolatzailea: Txosna Batzordea.

12:00 **ARTE MARTZIALEN KALEJIRA** Urkiola kaletik Alde Zaharrera.
Ondoren, erakustaldia Ezkurdin.
Antolatzailea: Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu.
Euria bada, Jesuitak ikastetxean.

13:00 **TABIRA MUSIKA BANDA**ren kontzertua Andra Mariko elizpean.

TABIRA MUSIKA BANDA



14:00 HERRI BAZKARIA San Fausto auzoan.

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

14:30 GAZTE EGUNEKO BAZKARIA txosnagunean.

Euria bada, Kurutziaga ikastolan.

16:00-19:00 TXIKIENTZAKO

PARKEA Landako eskolan.

Euria bada, Landako Eskolako frontoian.

16:00 PATINEN FREESTYLEA

EZKURDIN: TAILERRA ETA ERAKUSTALDIA.

Euria bada, San Antonio ikastetxeko frontoian.

16:00 "GAZTE JOLASAK"

txosnagunean.

16:30 Sukalki bazkaloste musikatua

AINHOA DJarekin Landako Gunean.

17:00 Adin guztientzako **HERRI KIROL**

PARTE HARTZAILEAK Ibaizabal parkean. Familian gozatu!

Antolatzailea: Auzo Alai elkarteak.

Euria bada, txosnaguneko karpan.

17:00 KARROPOTEO KUIRRA!

Pinondotik txosnagunera KUIR EZTANDAren eskutik.

Antolatzailea: Txosna Batzordea.

"CRUSOE" ANTZERKIA PUBLIKO GUZTIENTZAT



M'LOMP



17:30 SENEGALEKO ERRITMOAK

M'LOMP elkartearekin udaletxeko plazatik hasita.

18:00 UMEENTZAKO TAILERRAK

ETA DIBERTXOKEAK San Fausto auzoan.

18:00 MAUXITXA TXARANGA

txosnagunetik hasita.

Antolatzailea: Txosna Batzordea.

Euria bada, Kurutziaga ikastolatik.

18:00 40. SAN FAUSTO ZESTA

PUNTA TXAPELKETAREN FINALAK

Ezkurdi Jai Alai pilotatekuan. Neskak eta mutilak gazte eta nagusi mailan.

Antolatzailea: Durango Jai Alai Zesta Punta Eskola.

18:30 ANTZERKIA PUBLIKO

GUZTIENTZAT MARKELIÑEREN

"CRUSOE" ikuskizuna Aurora Abasolo

Parkean.

Euria bada, Nevers ikastetxean.

PATINEN FREESTYLEA



ALDAKAN



19:30-22:30 BLUSA TXARANGA
SUGARRI fanfarrearekin Alde Zaharretik.

20:00 Mugitu gerria ALDAKANen
CUMBIA, FUNK, AFROBEAT, CHAMAME, SONGO EDOTA SWING
erritmoekin Santa Ana Plazan.
Euria bada, Plateruenan.

20:00-22:00 UMEENTZAKO DISKO
DANTZA San Fausto auzoan.
Euria bada, karpan.

20:30 GFG -GAZTE FORO GAUA-
Ezkurdin. **PLAY IT!: SUKENA, DJ KENE**
eta **KAPARRAK**.

KAPARRAK



LA QUINTA RESERVA



21:00 ITZULI 70. HAMARKADARA
LA 5ª RESERVA taldearekin Andra Mariko
elizpean.

21:30 AFRIKAKO MUSIKA GHANAKO
TXARANGArekin Alde Zaharretik.

22:00 DISKO DANTZA San Fausto
auzoan.
Euria bada, karpan.

22:00 Kontzertuak txosnagunean:
EUSKOPRINCESS, TATTA&DENSO
eta **LA FULANA**.

22:30 CHAMAN ORKESTRA
Madalena auzoan.

LA FULANA





UMEEN EGUNA



IGANDEA 12

07:00 DIANA JAIZALE taldeko txistulariekin.

07:30 ZEZENAK DIRA dultzaineroekin.

10:30-14:30 ARTISAU AZOKA EIXU ARTISAU ELKARTEAREN eskutik Ezkurdin.

11:00 ALDIBEREKO XAKE PARTIDAK UMEENTZAT Andra Marin. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.

11:00-14:00 TXIKIENTZAKO PARKEA Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00-13:00 HAURRENTZAKO TAILERRAK Ibaizabal parkean. Antolatzailea: Inurri Eskaut Taldea. Euria bada, San Antonio ikastetxean.

EL LABERINT



11:00-14:00 GAZTETXOENTZAKO JOLASAK Ibaizabal parkean.

Euria bada, San Antonio ikastetxean.

11:00-14:00 GALDU ZAITEZ EL LABERINT-EKO ZIRRIKITUETAN BARRENA. Trebezia, iaiotasuna eta ondo pasatzeko gogo beharko dituzu irten ahal izateko. Adin guztientzako instalazioa Aurora Abasolo parkean ITINERÁNIA konpainiaren eskutik. Euria bada, Nevers ikastetxean.

11:30 BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK Alde Zaharrean KIETB Bermeoko Erraldoi Txikien Konpartsarekin eta Río de Oro elkartearekin.

BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK



PONIAK ETA ZALDIAK



12:00 PONIAK ETA ZALDIAK Ibaizabal parkean.

Euria bada, ez da egingo.

12:00 KALEJIRA Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 PATXIKOTXUREN KALEJIRA NEVERS ikastetxeko Txupinero Txikiek lagunduta Ezkurditik udaletxeraino.

12:30 TXUPINAZO TXIKIA NEVERS IKASTETXEAREN ESKUTIK udaletxeko plazan. Ondoren, Euskal dantzak KRISKITIN DANTZA TALDEarekin.

Euria bada, dantzaldia Andra Mariko elizpean.

12:30 KALEJIRA ALDE ZAHARRETIK ASTARLOA OTXOTEa eta IRUÑAKO AHOTS TALDEarekin.

NAGUSIENTZAKO BAZKARIA



13:30 "DURANGO URIA" XXV.

MARGO LEHIAKETAREN SARI BAKAKETA Ezkurdiko erakusketa aretoan.

Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte.

14:00 NAGUSIENTZAKO BAZKARIA Landako Gunean orkestrak girotua.

15:00 PALESTINAREKIN ELKARTASUN BAZKARIA txosnagunean.

Antolatzailea: Txosna Batzordea.

16:00-19:00 TXIKIENTZAKO PARKEA Landako eskolan.

Euria bada, Landako eskolako frontoian.

16:30 GAZTEENTZAKO JOLASAK ETA ARKU-TIROA Tabira auzoan.

Euria bada, Landako Gunean.

"DURANGO URIA" MARGO LEHIAKETA



X-TREM JUMP



IGANDEA 12

17:00 BITSA JAIA ETA TXOKOLA-TADA

Murueta Torre auzoan.

Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkarte.

17:00 IKASI BATXATA ETA ILARA-DANTZA

Muruetatorre auzoan. Ondoren, dantzaldia.

Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkarte.

Euria bada, Plateruenan.

17:00 SKATE TAILERRAK

Ezkurdi Plazan.

Euria bada, Kurutziaga ikastolan.

17:00 TORTILLA TXAPELKETA

San Fausto auzoan.

Tortillak aurkezteko epea: 19:00etan.

Sari banaketa 19:30ean.

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

17:00-20:00 EL LABERINT ARRA-TSALDEKO SAIOA

Aurora Abasolo parkean heldu eta haurrentzat.

Euria bada, Nevers ikastetxean.

17:30 JOSEPA KALE KALEREKIN KANTATU EUSKAL ABES-TIAK

Alde Zaharretik.

17:30 EGIZU DANTZAN ENE KANTAK

taldearekin Andra Mariko elizpean.

DJ MARATOI HERRIKOIA



20:00-22:00 MUSIKA URBANOAREN KONTZERTUA

San Fausto auzoan: YUSENK, EP MURCY, AZTEN eta TIERRA KRITIKAL, bere DJ-arekin JAY SCORP.

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

21:00 BERTAKO DJ-AK

Ezkurdin: SERGIO TORRADO eta GORKA PÉREZ.

22:00 DISKODANTZA


San Fausto auzoan.

Euria bada, San Fausto auzoko karpan.

22:00 DJ MARATOI HERRIKOIA

txosnagunean.

ENE KANTAK



GORKA PÉREZ



**DURANGO RUGBY TALDEAK PROPOSATUTAKO MOZORROA:
EUSKAL BASERRIAK**

SAN FAUSTO EGUNA



ASTELEHENA 13

07:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

10:00-12:00 **DURANGO IRRATIA AIREAN! 107.8 FM** solasaldiak. Zuzeneko programazioa Ezkurdiko kioskotik Durangoko udal ordezkariekin eta herritarrekin.

11:00-14:00 **TXIKIENTZAKO PARKEA** Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00-14:00 **GAZTETXOENTZAKO JOLASAK** Ibaizabal parkean. Euria bada, San Antonio ikastetxean.

11:00 **MEZA NAGUSIA** San Fausto elizan.

11:00 **PAELLA TXAPELKETA**

San Fausto auzoan.

Paellak aurkezteko epea: 14:00etan. Sari banaketa 14:30ean

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

11:30-14:30 **HAURRENTZAKO PUZGARRIAK** San Fausto frontoian.

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **PAELLA TXAPELKETA** txosnagunean. Sari banaketa 14:30ean.

12:30 **THOR MAGOA.** Ume eta familientzako ikuskizuna txosnagunean.

12:30 **TXALAPARTA, OHOREZKO AURRESKUA ETA ARTOPILEN BANAKETA** udaletxeko plazan. Ondoren, KRISKITIN DANTZA TALDEA. Amaitzeko: Larrain dantza. Euria bada, Andra Mariko elizpean.

13:00 **KANTUSAIOA EGUNDO I TALDEAREKIN** Alde Zaharretik.

ARTOPIILAK



EGUNDO I



ASTELEHENA 13

16:00-19:00 TXIKIENTZAKO

PARKEA Landako eskolan.

Euria bada, Landako eskolako frontoian.

17:00 TXOKOLATADA San Fausto

auzoan.

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

17:00 MAÑARIA ERREKAREN JAITSIERA Tabiratik.

Antolatzailea: Txosna Batzordea.

**17:00 ZURESKU EGURREZKO JO-
LASAK** eta joku tradizionalak **TORNEOS
DURANGO** elkartearen eskutik Ezkurdin.
Euria bada, Nevers ikastetxean.

18:00 UMEENTZAKO JOLASAK

San Fausto auzoan.

Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

18:00 PATXI ETA KONPAINIAREKIN GIRA ETA BUELTA DANTZATU Ezkurdin.

Euria bada, Plateruenan.

20:00 SWINTRONICS swing eta elek-
tronika fusio saioa Andra Mariko elizpean.

SWINTRONICS



OSTIRALA 17

17:00 TXIKI ROCK. Euskal rockaren
kantu esanguratsuenak familia osoaren
neurrira, Andra Mariko elizpean.

17:00 BALOI ESERIKO txapelketa
Merkatu Plazan.

Antolatzailea: Torneos Durango.

ZURESKU



ERREKAREN JAITSIERA



TXIKI ROCK



**JAIETAN, ETA BEREZIKI SAN FAUSTO EGUNEAN, DURANGOKO JANTZI
TRADIZIONALA JANZTERA ANIMATZEN ZAITUGU
(ALKONDARA ZURIA ETA GONA EDO PRAKA URDINAK).**

19:00 TORTILLA TXAPEL-

KETA txosnagunean.

Sari banaketa 20:30ean.

19:00 PILOTA FEST

Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

Neskak pala gomazko Bizkaiko

kluben arteko txapelketa:

Durango – Olgetan.

Ander Martin Estenaga Durangoko

Pelotazale Klubeko entrenatzaile

izandakoari omenaldia.

Ondoren, pelota partidua:

TITIN III eta ANDER ANTIXIA –

UNAI AGIRREZABAL eta MIKEL GOÑI.

Sarrerak: 10 €. Salgai: Urrats Kafetegia, Alex

Taberna, Mesoi Taberna eta frontoiko takilan.

Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba.

19:30 FANFARREEN KALEJIRA.

- SUGARRI fanfarrea Otamotzenatik Herria auzo elkarteak lagunduta.
- GAZTELEKU txaranga Madalenatik Auzo Alaik lagunduta.

20:00 DURANGOKO ABESBATZEN

KONTZERTUA Santa Ana elizan: ZEZILI,

BOGORODITSIE, ASTARLOA OTXOTEA eta

IZAR GAZTEA.

PILOTA FEST



21:30 FANFARRIEN ARTEKO NOR-

GEHIAGOKA Andra Mariko elizpean.

22:00 KONTZERTUAK TXOSNA-

GUNEAN: ØDEI, STREETWISE eta LES TESTARUDES.

22:00 BERTSOLARIAK San Agustin

Kultur Gunean:

IRUNE BASAGOITI, UNAI ITURRIAGA,

JULIO SOTO, BEÑAT GAZTELUMENDI,

ONINTZA ENBEITA eta MIREN ARTETXE.

Gai-jartzailea: MAITE BERRIOZABAL.

Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia

Museoan, urriaren 10etik aurrera.

23:00 Kontzertua Ezkurdin:

GATIBUren azken bira.

LES TESTARUDES



GATIBU





MOZORRO EGUNA

LARUNBATA 18

07:00 **DIANA** JAIZALE taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

11:00-14:00 **TXIKIENTZAKO**

PARKEA Landako eskolan.

Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00-14:00 **HAUR TAILERRAK**

ASEBIER elkartearen eskutik Landako eskolan.

Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00 **XAKE TXAPELKETA** federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago edo ajedrez.durango@gmail.com

Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 **KALEJIRA** trikitilariekin TXIRI TXIRI taldearen eskutik.

12:00 **XVI. PATATA TORTILLA**

TXAPELKETA Landako Gunean. Mailak:

15 urtetik beherakoak / 16 urtetik gora-koak. Izen ematea irailaren 17tik 26ra izango da www.durango-udala.eus webaren bitartez. Plazak zozketa bidez banatuko dira irailaren 30ean.

13:00 **APERITIBO MUSIKATUA LUHARTZ TALDEAREKIN** Andra Mariko elizpean.

15:00 **ELKARTASUN BAZKARIA TXOSNAGUNEAN.**

Antolatzailea: Txosna Batzordea.

16:00-19:00 **TXIKIENTZAKO**

PARKEA Landako eskolan.

Euria bada, Landako eskolako frontoian.

SUGARRI



XVI. PATATA TORTILLA TXAPELKETA



CÍA PAKIPAYA



16:00 KONTZERTUA TXOSNAGU-NEAN: HEITXI eta ALAIN.

18:00 KALEJIRA SUGARRI fanfarrea-ekin.

18:30 AIREKO AKROBAZIAK ETA ZIRKUA disko musikaren erritmora PAKI PAYA konpainiaren “Shake shake shake” ikuskizun sarituarekin Ibaizabal parkean. Euria bada, ikuskizuna bertan behera geratzen da.

18:30 MOZORRO DESFILE KOLO-RETSUA. Batu taldetxo bat eta parte hartu Madalenatik Andra Mariko elizperai-
no. Bukaeran, sari zozketa mundiala.
Izen ematea urriaren 1etik 17ra
www.durango-udala.eus webgunean.
Euria bada, Andra Mariko elizpean.

NUEVO VERSALLES ORKESTRA



AKERBELTZ



LUHARTZ



20:00 ERROMERIA LUHARTZ taldearekin Andra Mariko elizpean.

21:30 KONTZERTUA TXOSNA-GUNEAN: MARUXAK eta AKERBELTZ ERROMERIA.

23:00 NUEVO VERSALLES ORKESTRA Ezkurdin.

23:00-02:00 ALKOHOLEMIA KON-TROLAREN STAND INFORMATIBOA Landako Guneko plazan [txosnagunean].
Antolatzailea: Durangaldeko Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Arloa.

**ETXERA EGUNA TXOSNAGUNEAN . MOZORROAREN GAIA:
IPUINAK ETA KONDAIRAK**

IGANDEA 19

07:00 **DIANA JAIZALE** taldeko txistulariekin.

07:30 **ZEZENAK DIRA** dultzaineroekin.

10:00 **ARKU-TIORAKO TXAPEL-KETA LANDAKO GUNEAN:** Bizkaiko lehen RAUS autonomikoa eta San Faustoko arku-tiro txapelketa.
Antolatzailea: Durangoko arkulariak.

11:00 Nesken eta mutilen **SAN FAUSTO XIII. PADEL TXAPELKETAREN FINALAK** Landako kiroldegian.
Antolatzailea: Padelzaleak.

11:30-14:30 **TXIKIENTZAKO PARKEA** Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:30-14:30 **GAZTETXOENTZAKO JOLASAK** Ibaizabal parkean.
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

12:00 **MAKILLAJE TAILERRAK** Otamotzena Parkean.

12:00 **PONIAK ETA ZALDIAK** Tabira parkean.
Euria bada, ez da egingo.

12:00 **KALEJIRA** Musika Eskolako txistulariekin.

MAKILLAJE TAILERRAK



HERRI KIROLAK



12:00 **MARRAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA** San Fausto auzoan.
Antolatzailea: Centro Social San Fausto.

12:30 **HERRI KIROLAK** Ezkurdin: HODEI EZPELETA (2 aldiz Euskal Herriko eta 3 aldiz Bizkaiko txapelduna), ALEX TXIKON, BIHURRI (aizkolaria, mundu mailako hainbat marka dauzka esku batekin zein biekin), GOIZEDER BELTZA, UDANE OSTOLAZA (harrijasotzaile aitzindaria eta txapelduna hainbat markarekin), KARLOS ARETXABALETA, AINHOA LARRINOA eta ARATZ eta ENARA BELTZA ume aizkolaria.
Euria bada, Landako Gunean.

12:30 **TABERNA IBILTARIA**ekin kantu saioa udaletxeko plazan.

17:00 **ANIMAZIOA TRIKITIXAREKIN** pertsona nagusien egoitzetatik.

TABERNA IBILTARIA



ROJO TELÓN



ZINEMA PARADISE



17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa **L'ATELIER DANTZA ESKOLAren** eskutik Ezkurdin.

17:30 Klowna, aireko akrobaziak, ekilibrismoa eta barreak Otamotzena parkean **ROJO TELÓN** taldearekin.
Euria bada, Nevers ikastetxean.

18:00 Gozatu zinearen historiako kantarik goxoenek **ZINEMA PARADISE** saioan, Andra Mariko elizpean.

18:30 Kalejira **DUNBOTS FANFARRA**rekin Alde Zaharretik.

19:30 **PATXIKOTXURI ETA JAIEI AGUR ESATEKO KALEJIRA** udaletxeko plazatik hasita tren-kotxera zaharretaraino.

20:00 **JAIEI BUKAERA SU ARTIFIZIALEKIN** tren-kotxera zaharretan.

LARUNBATA 25

20:00 **DURANGO TXISTU KONTZERTUA 2025** Landako Gunean.
30. Urteurrena.
Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkarte.

IGANDEA 26

08:00 **DURANGOKO II. MENDI MARTXA.**


Izena emateko: www.kirolprobak.com
Ibilbide luzea (25 km.):
Irteera Landako Gunetik 8:00etan.
Ibilbide laburra (14 km.):
Irteera Landako Gunetik 9:00etan.
Antolatzailea: Alpino Tabira Mendi Kluba.

10:00 **MAÑARIA IBAIAREN GARBIKETA.** Hasiera: Pinondo parkean.

12:00 **56. UMEEN EUSKAL JAIA**
Talde parte-hartzaileen topaketa eta desfilea Landako Gunetik. Ondoren, alarde orokorra Ezkurdi plazan.
Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea.
Euria bada, Landako Gunean.

DURANGO TXISTU KONTZERTUA





EZKURDI UDAL ARETOA

**XXV. "DURANGO
URIA"
LEHIAKETAKO
MARGOLANEN
ERAKUSKETA.**

Urriaren 3tik 13ra.

Ordutegia:
egunero 18:00-20:00.

Larunbat, igande eta
jai-egunetan 12:00-14:00
eta 18:00-20:00.

Antolatzailea:
Durangaldeko Artisten
Elkartea.



**ZEZEN-PLAZAREN
PROGRAMAZIOA**

ANTOLATZAILEA:
BERGARAKO ZEZENAK

LARUNBATA 11

18:00 GRAND PRIX:
KUADRILENTZAKO JOKOAK
BIGANTXEKIN.

Sarrera: Umeak: 4 € • Helduak: 6 €

IGANDEA 12

18:00 ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA.
Ondoren bigantxak publiko guztientzat.
Sarrera: Umeak: 4 € • Helduak: 6 €

IGANDEA 19

18:00 ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA.
Ondoren bigantxak publiko guztientzat.
Sarrera: Umeak: 4 € • Helduak: 6 €